# EGA

ATARIKO PROBA

2003ko maiatzaren 17a

*Azterketa-eredua:* **A**

## IRAKUR ITZAZU OHARRAK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu azterketa honek 8 orrialde dituela eta ordena zuzenean daudela.
3. Idatzi hemen zure izen-deiturak eta NA zenbakia.

| *NA zenbakia* | *Izena* |
|---|---|
| | |
| *1. deitura* | *2. deitura* |
| | |
| *Euskaltegia* | |
| | |

4. Gogoan izan azterketa honek ordubete iraungo duela, entzutezko ulermeneko galderei erantzun ondoren.
5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko erantzun-orriko B atala.
6. Ariketa bakoitzean erantzun **egokiena** edo **zuzena** aukeratu eta erantzun-orrian kasuan kasuko koadrotxoa arkatzez markatu: erantzun bakarra onartuko da.
7. Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat izango du.
8. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.
9. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzenduko da. Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola ulertzen da.

# ENTZUTEZKO ULERMENA

## LEHEN ATALA

**1. Zertzat dauka bere burua Iñaki Perurenak?**

a) Harri jasotzaile izandakoa dela dio.
b) Poeta, harri jasotzaile, harakin eta aktoretzat.
c) Batez ere, harri jasotzailetzat.

**2. Estitxu Fernandezek zertan dihardu gaur egun?**

a) Telebista aurkezle lanean.
b) Bertsolari eta telebista aurkezle lanetan.
c) Bertsolari, psikologo eta aurkezle lanetan.

**3. Iñaki Perurenak aktore lanean hasi zenean...**

a) beste lanbiderik ez zuen.
b) ez zuen erraza izan beste lanbideekin batera oreka mantentzea.
c) nahiko gaizki hartu zuen, ez zuen jarraitu nahi.

**4. Aktore baten lehen egitekoa...**

a) ingurukoei arazorik ez eragitea da.
b) ingurukoekin ongi konpontzea da.
c) ordua errespetatzea da.

**5. Aktore lanean gidoia ikastearekin nahikoa da?**

a) Hori gutxienekoa da; abiapuntua baino ez.
b) Gidoia jakin ez arren, saioa molda daiteke.
c) Gidoia jakin gabe, askatasun handiagoz joka daiteke.

**6. Bizitzaren edozein alorretan, mailarik gorena 20 urte inguruan izaten da?**

a) Hala da, sasoirik hoberena orduan izaten baita.
b) Zenbaitetan, bai; beste batzuetan, ez.
c) Bai, zenbat eta gazteago, orduan eta adoretsuago.

## BIGARREN ATALA

**7. Estitxu Fernandezen kasuan, telebistako lanak beste lanak uztera eraman zuen hasiera-hasieratik?**

a) Bai, horrela da.
b) Ez, hasiera hartan beste lan batzuekin batera egiten zuen.
c) Bai, lan gehiegi batera izateak aspertu egiten du.

**8. Nola hartzen du lana Iñaki Perurenak?**

a) Norgehiagoka moduan.
b) Gauza astun moduan.
c) Astuna bada ere, ez du nekatzen.

**9. Zer du gogoko Estitxu Fernandezek?**

a) Jendea ezagutzea, berrikuntzak, ikastea.
b) Zaudenean geratzea, gogaitzea.
c) Aldakuntza, beti gauza berrien bila aritzea.

**10. Jendearen ustez, nolakoa da hauen lana?**

a) Serio egin beharrekoa.
b) Erronka modura egin beharreko lana, freskatzen duena.
c) Ez da lana.

**11. Iñaki Perurenaren ustez, euren lana...**

a) dohain egokiak izanez gero, erraza izan daiteke.
b) edozein modutan ere, neketsua.
c) gustukoa, polita, erraza eta arina.

## HIRUGARREN ATALA

**12. Zerk erakartzen du Estitxu Fernandez?**

a) Kamerak, soil-soilik.
b) Jendaurrean aritzeak.
c) Jendearen txaloak eta txistuak.

**13. Bertsotan sentitu da ongien Estitxu Fernandez?**

a) Bai, ahaleginaren ondoren esker ona baitator.
b) Bai, bertso mota guztiak atsegin baititu berak.
c) Bai, bertso onaren ondoren txaloa datorrelako.

**14. Nolako bertsoak bota izan ditu Estitxu Fernandezek?**

a) Onak, txaloak baino ez ditu jaso.
b) Batzuetan, onak; txarrak ere, ugari.
c) Agian, gehienetan, txarrak.

**15. Euskaldunok bertsolariekin zerbait berezia dugu?**

a) Ez pentsa; agian, batzuetan bai.
b) Harrijasotzaileekin ez bezala, bertsolariekin bai.
c) Bai, horrela da.

**16. Nola ikusten du kamera Iñaki Perurenak?**

a) Hotza eta beroa.
b) Hasieran hotza izan arren, gero ahantzi egiten da.
c) Nolanahi ere, erabat hotza.

**17. Zer abantaila du zuzeneko saioak?**

a) Saio guztiak ezberdinak dira; guztiz aberasgarria da.
b) Jendeari gauzak galdetzeko aukera ematen du.
c) Abantailarik ez du; kamera aurrean gauzak lasaiago egiten dira.

**ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA**

**18. Taberna batera sartu, eta ondoko mahaian ezezagun bat bazkaltzen ari da. Nola agurtuko duzu?**

a) Aspaldiko!
b) Bejondeizula!
c) On egin diezazula!
d) Gabon!

**19. Lasterketa batean, ahalegin bizian doan lasterkaria animatzeko:**

a) Jo eta ke!
b) Hori duk eta!
c) Aurrera arineketan!
d) Goazen aurrera!

**20. Aukeratu esaldi zuzena.**

a) Etxeko lan guztiak biharkorako egin behar dituzu.
b) Bere gurasoengandik maitatua hazi zen Jon.
c) Pellotaz esan dituzten guztiak okerrak dira.
d) Zuzendari hautatu dutenetik lanpeturik dabil Eider.

**21. Ondoko hitzetatik zeinek du *gari* hitzarekin zerikusia?**

a) Galera.
b) Galbidea.
c) Galzoria.
d) Galsoroa.

**22. Zein da zuzena?**

a) Arnasestuka gentozten guztiok.
b) Geuk ere bagenekigun horrenbeste.
c) Horixe esaten nenbilkion auzoko Mikeli, baina alferrik.
d) Nora ote zihoazten horren bizkor!

**23. Guraria edo nahia adierazteko:**

a) Lortuko ahal dugu!
b) Ze ondo lortuko badugu!
c) Lortu ez dugunean!
d) Lor dezagun, ba!

**24. *Zirt edo zart egin beharrean gaude*. Alegia:**

a) Lehertu beharrean gaude.
b) Erabaki beharrean gaude.
c) Hondoa jotzear gaude.
d) Barrez lehertu beharrean gaude.

**25. Aukeratu zuzena. *Mirenek bere buruaz beste egin ..... zurrumurrua zabaldu da.***

a) duen
b) duelaren
c) duelakoaren
d) duenaren

**26. *Atzoko kolpearen ondorioz, ..... daukat besoan.***

a) ubeldura
b) beltz-bildua
c) beltz-burua
d) more-burua

**27. *Getarian bertan pasatu ditut oporrak, Elkano kalean, .....***

a) bide batez.
b) bidenabar.
c) hain zuzen ere.
d) apika.

**28. *Ume horrek <u>aurretik darabiltza</u> etxeko guztiak.* Parekoa hautatu.**

a) Bere nahierara erabiltzen ditu.
b) Bidea zabaltzeko erabiltzen ditu.
c) Bere aurrean kokatzen ditu.
d) Aurrez aurre jartzen ditu.

**29. *Hain berandu egin zitzaigun, ezen ..... autoan joan behar izan .....***

a) neure baikenuen.
b) nere bait genuen.
c) neure baitgenuen.
d) nere baigenuen.

**30. *Harrigarria izan zen atzoko kazkabar erauntsia! Haiek aleak! Hura botatzea!* Aukeratu jarraipen egokiena.**

a) Halako-halakorik!
b) Noizbait halakorik!
c) Noiznahi halakorik!
d) Egundo halakorik!

**31. *Bilboko Erakustazokan, erakusketa batzuk ..... baino ez dira antolatzen, urte batean bai eta hurrengoan ez, alegia.***

a) bi urteko
b) bi urtez
c) bi urterik behin
d) bi urteka

**32. *Burua apurtu ez duenean!* Zein da baliokidea?**

a) Ia-ia apurtu du burua.
b) Doi-doi apurtu du burua.
c) Burua apurtu egin du.
d) Ozta-ozta apurtu du burua.

**33. Puntuazioaren aldetik, bakarra da zuzena.**

a) Aurreko baten, ezagutu zenuten mutila, nire gelan dago.
b) Aitak amari: gona gorria erosi dio.
c) Garaiz itzuli naiz etxera, nazkatuta bainengoen.
d) Bada bihar etorriko zara?

**34. Hitz hauetatik zeinek ez du zerikusirik txirrindularitzarekin?**

a) Tropela.
b) Helmuga.
c) Ihesaldia.
d) Saskiraketa.

**35. *Hamaika sartu-irten egindakoak dira etxe horretan!* Hau da:**

a) Makina bat aldiz joan dira etxe horretara.
b) Lagun asko joan dira etxe horretara.
c) Hamaika lagun joan dira etxe horretara.
d) Arazo asko izan dute etxe horretan.

**36. *Ez ..... gaizki opari eder bat erosiko bazenit.***

a) bekit
b) zenidake
c) legoke
d) dakidake

**37. Zein da zuzena, ondokoen artean?**

a) Ikastolan ingelera eta alemandarra ikasten genuen.
b) Gaur atzo baina eguraldi kaxkarragoa dugu.
c) Argentindarrak eta txiletarrak izan ditugu bisitan.
d) Ikasgai honek ia ez du edukirik, ariketak baino ez ditu.

**38. *Pello beti ..... ibiltzen da, sesioa nondik sortuko.***

a) arropak ehotzen
b) haizeak astintzen
c) bazterrak nahasten
d) hariak korapilatzen

**39. *Jakinaren gainean esan zituen hitz mingarri haiek.* Hau da:**

a) Gehiegi pentsatu gabe esan zituen hitz mingarri haiek.
b) Zer esaten zuen ondo zekiela esan zituen min emateko hitzak.
c) Nahi gabe esan zituen hitz mingarri haiek.
d) Jakin nahian esan zituen hitz hunkigarri haiek.

**40. Zein dago ondo?**

a) Nor eta zuk aurkitu behar galdu nuen eraztuna!
b) Non eta Donostiara joan nahi izatea ere!
c) Zerk eta lanik ez izateak kendu dik bizitzeko gogoa?
d) Zer eta diruari ematen diozu halako balio handia?

**41. *Futbolean ari ginela kristala hautsi ondoren, ..... entzun behar izan nituen!***

a) gaziak eta gozoak
b) zuriak eta beltzak
c) neureak eta bi
d) besterenak eta bost

**42. Zein dago zuzen euskara batuan?**

a) Umeak amari platerrak bota zizkion.
b) Ikasleak eskolatik zetozten.
c) Liburuak oso zaharrak ziran.
d) Liburuak idazle on batenak dira.

**43. *Altzairutegi horren ondoan dagoen iturburuko ura .....***

a) ez da edangaia.
b) edangaitza da.
c) ez da edatekoa.
d) ez-edangarria da.

**44. *Ez da batere ohikoa Joane Somarribak lortu duena, ..... bi Giro eta Tourra irabaztea.***

a) aurki
b) zera da
c) halaber
d) alegia

**45. *Goizetan ohea egiten al duzu?* Erantzun okerra aukeratu.**

a) Jakina!
b) Bai egiten dudala!
c) Ez, zera!
d) Egingo ez dut, ba?

**46. *Nekazariek ..... ereiteari utzi diote.***

a) garia
b) artaburuak
c) okela
d) sagardoa

**47. Zein dago oker?**

a) Dioten arabera.
b) Zuri esker.
c) Teilatu gainean.
d) Ibaiaz bestaldean.

**48.** ***Egin didazun barrabaskeria ez da erraz barkatzekoa; .....***

a) odolkiak kobratuko dituzu!
b) larrutik ordainduko duzu!
c) aitaren batean bihurtuko zaizu!
d) gorriak ikusiko dizkidazu!

**49.** **Nola idazten da** ***1.753*** **zenbakia?**

a) Mila zazpiehun berrogeita hamahiru.
b) Mila zazpiehun eta berrogeita hamahiru.
c) Mila zazpiehun eta berrogei eta hamahiru.
d) Mila zazpiehun berrogei eta hamahiru.

**50.** **Hileta elizkizunean, zer esango zenioke familiartekoari?**

a) Damu dut!
b) Atsekabean lagun!
c) Dolumina dut!
d) Eskumuinak!

**51.** ***Eman ..... 2050. urtea dela. Nola biziko ginateke?***

a) litzateke
b) dezagun
c) diezagun
d) genezan

**52.** ***Hurbilekoa astiro aztertzeko gauza izan ez eta urrutira azkar iristeko amorratzen dagoenari ezer gutxi eska dakioke.*** **Bestela esanda:**

a) Hurbilekoa aztertzeari utzi eta urrutiko gauzetara azkar jo nahi duenak zerbait onik egingo du.
b) Gertukoa lasai aztertu ezin eta urrutira iristeko desiratzen dagoenak nekez egingo du gauza handirik.
c) Urrutira azkar iritsi nahi eta gertukoa sakon aztertzen duenari ezer gutxi eska diezaiokegu.
d) Hurbileko gauzak sakon aztertzen ez dituenari amorrurik ezin eskatu.

**53.** **Aukeratu zuzena.**

a) Badago irakasle bat haserretzean ikasleak jotzen dituela.
b) Noiz eta goizago oheratu, orduan eta hobeto lo egin.
c) Oparia eman dietenei oso pozik jarri dira.
d) Eskerrak ikasturtea laster amaituko den!

**54.** **Zein da zuzena euskara batuan?**

a) Egin dezakeenak egin dezala.
b) Eman hala jaten zuten belarra.
c) Autobusa galduez gero, deitu etxera.
d) Gauz guztiak ondo egiten ditu.

**55.** ***Guztiak oporretan eta ni lanean? ....., gauean sagardotegira joango naiz afaltzera!***

a) Hori da hori
b) Horra hor
c) Zer arraio
d) Banengoen ba, ni

**56.** ***Dendariak ez bezala, bezeroak haserre daude erosteko ahalmena aurten asko urritu delako.*** **Alegia:**

a) Gero eta gauza gutxiago eros dezakete bezeroek.
b) Gero eta gauza gehiago erosten dute bezeroek.
c) Dendariak gero eta haserreago daude.
d) Gero eta diru gutxiago dute bezero nahiz dendariek.

**57.** **Zein da zuzena?**

a) Aurreko astean izugarrizko dirutza irabazi egin dut.
b) Bizikleta hori 3.000 euro kostatu egin zait.
c) Diru hori guztia, irabazi ez, lapurtu egin zuen.
d) Hiru urte aurreztu egin genuen bizikleta erosteko.

**58.** ***Hainbeste hilabetez kontzertu honen zain egon, ..... azken unean bertan behera uzten duten!***

a) eta hara non
b) eta zer eta
c) eta ea nola
d) eta hara noiz

**59.** **Bat <u>okerra</u> da euskara batuan.**

a) Lan asko egin erazi digute irakasleek.
b) Txistuka eta deiadarka hartu zuten.
c) Bi ordu igaro ditut hemen zuri itxaroten.
d) Iparralderantz abiatu ziren hegaztiak.

**60.** ***Bi seme-alaba ditu, ..... ederragoak.***

a) haiek baino
b) zenbat eta
c) nola edo hala
d) zein baino zein

**61. Duela gutxi gertatutako zerbait azaltzen hasteko:**

a) Beste egunean…
b) Lehengo batean…
c) Harako hartan…
d) Halako batean…

**62. *Kanpandorreko erlojua nirea baino...***

a) hamar minutu atzera dabil.
b) hamar minutu atzean dabil.
c) hamar minutu atzerago dabil.
d) hamar minutu atzetik dabil.

**63. Hurrengo bikoteetatik, zein da esanahi berekoa?**

a) Amore eman - norbait maitatu.
b) Irri egin - musua eman.
c) Urteak egin - duela hainbat urte gertatu
d) Abisu eman - jakinaren gainean jarri.

**64. *Nongoak ote dira atzerritar horiek?* Erantzun bat <u>desegokia</u> da.**

a) Batek daki!
b) Auskalo!
c) Norbaitek daki!
d) Ezin jakin!

**65. *Izugarria da! Nola burura ..... horrelakorik?***

a) litzaizuke
b) zekizun
c) dakizuke
d) zitzaizkizun

**66. *Autobusez gindoazela, zorabiatu eta ..... sentitu nuen, baina ez zegoen poltsarik.***

a) goragalea
b) urdail-jauzia
c) urdailerrea
d) goitikoa

**67. Zein dago <u>oker</u> euskara batuan?**

a) Itxarongo zaitut.
b) Deituko dizut.
c) Deituko zaitut.
d) Lagunduko dizut.

**68. *Gaua da, ilun dago, euria, haizea eta hotza*.**

a) A zer gaua gaurkoa!
b) Ai gaurko gaua!
c) Hau bai da gaua!
d) Gau txar hau!

**69. *Zein lekutan utzi dituzu gaur goizean Jonek eman dizkizun apunteak?***

a) Jonek eman dizkidan apunteak utzi ditut hemen.
b) Armairuaren gainean gaur goizean utzi ditut apunteak.
c) Hantxe Jonek emandakoak utzi ditut.
d) Jonek emaniko apunteak beheko armairuan utzi ditut.

**70. Aukeratu jarraipen egokia. *Non gogoa...***

a) han golkoa.
b) han zangoa.
c) han mandoa.
d) han ahoa.

**71. *Aneren hitzak ez ziren erresumindu batenak, egiari tokia egitearen onuran sinesten zuen batenak baino.* Alegia:**

a) Gezurrekin atsekabetuta zegoelako zakarki hitz egin behar izan zuen Anek.
b) Egia esateak abantailak dakartzala sinesten zuelako mintzatu zen Ane hala.
c) Erresumaren hobebeharrez baino areago, egiazale zelako mintzatu zen Ane hala.
d) Egoerarekin zeharo mindurik zegoelako hitz egin zuen Anek era hartan.

**72. *Jonek guri pilotan irabazi?***

a) Bejondeigula!
b) Ezta txintik ere!
c) Hori bai pagotxa!
d) Esatea ere!

**73. Zein da zuzena?**

a) Ameriketatik etorri den osabak ere kotxe berria erosi du.
b) Ameriketatik etorri den osabak ere bai kotxe berria erosi du.
c) Ere bai Ameriketatik etorri den osabak ere kotxe berria erosi du.
d) Ameriketatik etorri den osabak kotxe berria erosi du ere bai.

**74. *Ez gara ospakizun horretara joan, ez ..... gonbidatu*. Bakarra da zuzena euskara batuan.**

a) bait gaituzte
b) baikaituzte
c) baitgaituzte
d) baigaituzte

**75.** ***Nire autoak 20 urte ditu*. Aukeratu jarraipen egokiena.**

a) Hobebeharrez dago.
b) Aldatzear dago.
c) Bere onetik aterata dago.
d) Onenak emana dago.

**76.** ***Iñaki neska batekin dabil eta Patxi beste batekin.* Beste era batera esanda:**

a) Iñaki eta Patxi neska berarekin dabiltza.
b) Iñaki eta Patxi neska banarekin dabiltza.
c) Iñaki eta Patxi neska batekin dabiltza.
d) Iñaki eta Patxi neskarekin berarekin dabiltza.

**77. Zein dago gaizki?**

a) 03:15ean.
b) 12:30ean.
c) 15:00ean.
d) 12:12an.

**78.** ***Alde egin duzue bilera bukatu gabe?* Aukeratu erantzun egokiena.**

a) Bai, ez zen han giro!
b) Horixe, kito egin digute!
c) Bai horixe, alde eginda!
d) Bai, eta musu-truk!

**79.** ***Nor uste duzu zarela gu horrela erabil .....?***

a) gintezen
b) zenezan
c) gintuzun
d) gaitzazun

**80. Bakarra da zuzena euskara batuan.**

a) Telebista ikusi leikezu.
b) Liburuak erosi ditzazke.
c) Geltokira eraman nazakezu.
d) Sarrerak ordain dezazket.

**81.** ***Gogoko tokian...* Aukeratu jarraipen egokia.**

a) aldaparik ez.
b) harriak urre.
c) txoriak habian.
d) belarra gozo.

**82.** ***Zozketako txartela ..... inoiz ez zaizu tokatuko.***

a) ez erostean
b) ez erosiz gero
c) ez erositakoan
d) erosi ezean

**83.** ***Martarekin zorretan nagoela burutik kendu ezinik nabil. Lehenbailehen beharko dut...***

a) zorra egokitu.
b) zorra eskatu.
c) zorra burutu.
d) zorra kitatu.

**84.** ***....., gero, garaipena erraza izango denik!* Aukeratu hasiera egokiena.**

a) Ezta pentsatzea ere
b) Ezta pentsa ere
c) Ez pentsatzea
d) Ez pentsa

**85.** ***Poltsakada ..... sagar zekarren aldean.***

a) oso
b) guztia
c) bete
d) gain

**86.** ***Gurasoek neu izendatu ninduten ....., eta etxea niretzat izango da*. Aukeratu hitz egokia.**

a) jarraitzaile
b) harpidedun
c) hartzeko
d) oinordeko

**87.** ***Gogoan dut behinola Ghandi elkarrizketatzeko zoria izan nuela*. Beste era batera:**

a) Ghandi elkarrizketatzekotan egon nintzen, baina ez nuen lortu.
b) Oso aspalditik izan dut Ghandi elkarrizketatzeko gogoa.
c) Behin Ghandiri elkarrizketa egiteko aukera izan nuen.
d) Ghandiri elkarrizketa egitea zozketan neuri egokitu zitzaidan.

**88.** ***Beti esan duzu mutil hori ez zela gure ingurukoa; gaur jakin dugu argentinarra dela*. Aukeratu erantzun egokiena.**

a) Banengoen, ba!
b) Iritzi horretan nengoen ni!
c) Hara nola esaten nuen nik!
d) Egon zaitezte horretan!

**89. Zein da zuzena?**

a) Herritar guztiak erasotu zituzten.
b) Urtearen zehar makina bat ekitaldi antolatzen da herrian.
c) Atzoko bileran zuzendari izendatu ninduten.
d) Alde askoetatik jasan zituen irainak.

**90.** ***Bill Gates aberatsak ere lagundu duela behartsuen aldeko kanpaina? ..... hainbeste daukanagandik!***

a) Gutxienez
b) Nahi litzateke
c) Ez horixe
d) Ez da zertan

**91. Puntuazioaren aldetik, zein da zuzena?**

a) Lau ikasle bakarrik agertu ziren; Jon, Ane, Josu eta Miren.
b) Senar-emazteak elkarri besotik, helduta irten ziren kalera.
c) Hortaz non gelditoko gara biharko?
d) Ordurako iritsi nintzen, nahiz eta autoan matxura izan.

**92.** ***Udaletxean aurkeztu behar duzun eskaera-eskutitz baten amaiera.***

a) Nire eskubideek ematen didaten zilegitasunez...
b) Zuen erantzunaren zain, gero arte.
c) Eskatutakoa betetzea nahitaezkoa denez.
d) Nire eskaera aintzat hartuko duzuelakoan.

**93.** ***Oso zaila da idazlan hori zuzentzea eta txukuntzea: ..... bere horretan.***

a) dagoen
b) egon dadin
c) egon dagoela
d) bego

**94.** ***Zuzendari berria berreskuratzekotan da idazkari ohiak auzitan jarri zuen urteetako lankidetza.***

a) Ikuskizun dago zuzendari berriak idazkari ohiaren lankidetza berreskuratuko ote duen.
b) Zuzendari berriak idazkari ohiak utzitako auziak berreskuratzeko asmoa azaldu du.
c) Oraingo zuzendaria iritsi aurretik, idazkari ohiak auzitara eraman zuen urteetako lankidetza.
d) Idazkari ohiak ez bezala, zuzendariak urteetako lankidetzak irautea nahiko luke.

**95. Zeinek <u>ez</u> du loturarik gainontzekoekin?**

a) Udalbatza.
b) Zinegotzia.
c) Aurrekontua.
d) Umezurtza.

**96.** ***Gaztetan ikasi nuen, baina ordutik ez dut autorik hartu, eta...*** **Zein da jarraipen zuzena?**

a) gidatzen ahaztu egin zait.
b) gidatzea ahaztu egin dut.
c) gidatzeaz ahaztu egin zait.
d) nola gidatzea ahaztu naiz.

**97.** ***Egoera honek Hiesa errazago antzematea ahalbidetuko du*****. Beste era batera:**

a) Egoera honek Hiesa errazago hedatzeko bidea emango du.
b) Egoera honek Hiesa hain erraz kutsatzea eragotziko du.
c) Egoera honek Hiesaren aurkako babesa sustatuko du.
d) Egoera honek Hiesa errazago diagnostikatzeko aukera emango du.

**98.** ***Urte asko joan dira egitasmoaren hasieratik gauzatzeko unera arte*****. Alegia:**

a) Urtez urte berritu beharreko egitasmoa izan da.
b) Aspaldi gauzatu zen aipatutako proiektua.
c) Proiektuaren abiaburua aspaldikoa da.
d) Egitasmoa urtez urte bere fruitua emanez joan da.

**99. Errieta eginez:** ***Debekatua dago hemen egotea, ..... hemendik!***

a) tira
b) tori
c) ospa
d) erdu

**100.** ***Badakit liburua galdu duzula, baina etxe osoa arakatu dut eta ez dago ..... liburu horren arrastorik.***

a) hartako
b) halako
c) delako
d) baizik ere

**OHARRA:**

**Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NA zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.**

**ERANTZUNAK**

**2003/05/17**

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | a | 21 | d | 41 | c | 61 | b | 81 | a |
| 2 | a | 22 | c | 42 | d | 62 | c | 82 | d |
| 3 | b | 23 | a | 43 | c | 63 | d | 83 | d |
| 4 | c | 24 | b | 44 | d | 64 | c | 84 | d |
| 5 | a | 25 | a | 45 | b | 65 | c | 85 | c |
| 6 | b | 26 | a | 46 | a | 66 | a | 86 | d |
| 7 | b | 27 | c | 47 | a | 67 | a | 87 | c |
| 8 | a | 28 | a | 48 | b | 68 | a | 88 | a |
| 9 | a | 29 | a | 49 | b | 69 | d | 89 | c |
| 10 | c | 30 | d | 50 | b | 70 | b | 90 | b |
| 11 | a | 31 | c | 51 | b | 71 | b | 91 | d |
| 12 | b | 32 | a | 52 | b | 72 | d | 92 | d |
| 13 | a | 33 | c | 53 | d | 73 | a | 93 | d |
| 14 | b | 34 | d | 54 | a | 74 | b | 94 | d |
| 15 | c | 35 | a | 55 | c | 75 | d | 95 | d |
| 16 | b | 36 | c | 56 | a | 76 | b | 96 | a |
| 17 | a | 37 | d | 57 | c | 77 | c | 97 | d |
| 18 | c | 38 | c | 58 | a | 78 | a | 98 | c |
| 19 | b | 39 | b | 59 | a | 79 | d | 99 | c |
| 20 | d | 40 | c | 60 | d | 80 | c | 100 | c |